



2/2015 Zirkularra, irailaren 3koa, Zerga Administrazioako Zuzendaritzena, PFEZren eta Ez-egoilarren Errenta Zergaren konturako ordainketei buruzkoa

2015eko uztailaren 10eko 9/2015 Errege Lege-dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek jasaten duten tributu-karga gutxitzeko premiazko neurriak eta izaera ekonomikoa duten beste neurri batzuk ezartzen ditu; bada, errege legedekretu horrek, bere artikuluetan, xedatzen du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aldatu egin behar direla zenbait atxikipen, eta, aldaketa horiek, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat, foru-aldundiko zergei buruzko arautegian jaso behar dira.

Arestian aipatutako errege lege-dekretu horrek beste aldaketa batzuk ere biltzen ditu atxikipenen eta konturako sarrerren tasei dagokienez, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat nahitaez jaso behar ez direnak foru –aldundiko zergei buruzko arautegian, baina, edozelan ere, koherentziak eraginda, aldaketa horiek ere gure araudian ezartzea komeni da, gure inguruko tributuadministrazioek ere aplikatzen baitituzte.

Horrela, Foru-aldundiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) arautegietan aldaketak¹ onartu dituzte, lan-etekinen gaineko atxikipenak aldatu egin direla.

1. Lanaren etekinen gaineko atxikipenak.

Indarrean jarraitzen du 2014ko atxikipen-ehunekoen taula orokorra.

2. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak.

Uztailaren 12 arte, kapital higigarriaren etekineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko atxikipen-oinarriari %20ko tasa aplikatu behar zaio.

Uztailaren 12tik aurrera, kapital higigarriaren etekineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko atxikipen-oinarriari %19,5ko tasa aplikatu behar zaio.

3. Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipenak.

Uztailaren 12 arte, etekinak profesional-jarduera baten kontraprestazio direnean, ordaindu diren sarrera osoen %19ko atxikipen-tasa aplikatuko da.

Lanbide-jardueren etekinen gaineko atxikipen eta konturako sarrerren portzentajea %15 izango da baldin eta aurreko ekitaldiko lanbide-jardueren etekin osoen bolumena 15.000 euro baino gutxiago bada eta zergadunek ekitaldi horretan lortutako ekonomia- eta lan- jardueren etekin osoen baturaren %75 baino gehiago bada.

Profesional-jarduerari ekin dioten zergadunen kasuan, atxikipen-tasa %9 izango da.

Bi aurreko lerroaldean ezarri den atxikipen-tasa aplikatzeko, inguruabar hori gertatu dela jakinarazi behar diote zergadunek etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzaileak jakinarazpen hori gorde beharko du, behar bezala sinatuta.

¹ Araba: DF 41/2015, uztailaren 21koa (BOTH de 2015/07/31).
DF 48/2015, abuztuaren 4koa (BOTH de 2015/08/21).
Bizkaia: DF 128/2015, uztailaren 21koa (BOB de 2015/07/28).
Gipuzkoa: DF 73/2015, uztailaren 28koa (BOG de 2015/07/30).
DF 79/2015, irailaren 1ekoa (BOG de 2015/09/02).



Atxikipen-tasa %9 izango da honako hauei ordaindutako etekinetan ere: udal zerga-biltzaileei, Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru-bitartekariei eta Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen merkataritzako ordezkariari.

Uztailaren 12tik aurrera, etekinak profesional-jarduera baten kontraprestazio direnean, ordaindu diren sarrera osoen %15ko atxikipen-tasa aplikatuko da, eta %9koa %7ko izango da.

4. Ondare-irabazien eta higiezin errentamenduen eta azpierrementamenduen gaineko atxikipenak.

Uztailaren 12ra arte, inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare-irabazien eta azpierrementamenduen gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, %20ko tasa aplikatu behar zaio atxikipen-oinarriari.

Uztailaren 12tik aurrera, inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare-irabazien eta azpierrementamenduen gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, %19,5ko tasa aplikatu behar zaio atxikipen-oinarriari.

5. Sarien gaineko atxikipenak.

Uztailaren 12 arte eskudirutan ordaintzen diren sarietan egingo den atxikipena horien zenbatekoaren %20ko izango da.

Uztailaren 12tik aurrera eskudirutan ordaintzen diren sarietan egingo den atxikipena horien zenbatekoaren %19,5ko izango da.

6. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko atxikipen-tasak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren mende egindako ordainketetan.

2015 urtean, orokorrean, atxikipen-tasa %24koa izango da.

Dena dela, Europar Batasuneko beste estatu kide batean egoiliar diren edo, tributu-arloko informazio-truke eraginkorrik dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean egoiliar diren zergadunei dagokienez, % 20koa izango da atxikipen-ehunekoa. (Iruzur fiskala prebenitzeko neurriari buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 4. paragrafoan aurreikusitako moduan, bertan aipatzen da paradisu fiskaltzat hartzen ez diren herrialde edo lurraldea izatea, eta Espainiaren eta herrialde horren artean nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena izatea, informazioa trukatzeko klausula duena).

Nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen jarraituz, jatorrizko herrialdeko zerga-alorreko agintarien ziurtagiria aurkeztuz gero, zeinetan zergak ordaintzen dituela aipatzen den, hitzarmenean dagoen atxikipena aplikatuko zaio (orokorrean, salbuespena.)

Oharra: Oro har, atxikitze betebeharra sortuko da atxikipenaren menpean erretak ordaintzen diren unean, beraz, indarrean dagoen araudiak xedatzen duenari men egin behar zaio kenkariak, atxikipenak. (Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketatik edo itzulketetatik datozen kapital higigarriaren etekinen eta ondare-irabazien gaineko atxikipenen kasuan berariazko xedapenak daude).

Vitoria-Gasteizen, 2015eko uztailaren 3an.

Zerga Adminiztrazioko Zuzendaritza